



6/2018 AKTA

2018ko apirilaren 12an, 12:00etan, Vitoria-Gasteizen elkartu da **Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau jorratu da:

1. Ebazteko dauden espedienteen ebazpen-proposamenak.
2. Ebazteko dauden espedienteen esleipena.
3. Galde-eskeak.

PRESIDENTEA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

KIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1.- 2018/000016 espedientearen ebazpen-proposamena

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, Batzordeko kideek azter zezaten. Aztertu ondoren, proposamena eginda zegoela eta epez kanpo erreklamazioa jaso duen erakundearen alegazioak iritsi direla aipatu da. Aho batez onartu da alegazioak berrikustea, epez kanpo dauden arren, eta, hala egokituz gero, beste ebazpen-proposamen bat idaztea erabaki da.

2.- 2018/000020 espedientea

Proposamena egin duen batzordekideak adierazi du espediente honetan ere epez kanpo iritsi direla alegazioak, eta 2018/000016 espedientearen erreklamazioa jaso duen erakunde berberak egin dituela. Aho batez onartu da alegazioak berrikustea, epez kanpo dauden arren, eta beste ebazpen-proposamen bat idaztea erabaki da.

3.- Ebazteko dauden espedienteen esleipena.

Ondoren, ebazteko dauden espedienteak kideei esleitu dizkie presidenteak.



- 2018/000039 espedientea Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari.
- 2018/000040 Ez da espediente berri bat, Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andreari esleitutako 2018/000033 espedientearen dokumentazio osagarria baizik.
- Aplikazioan ez da erregistratu. Posta elektronikoen bidez iritsi da espedientea. Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari esleitu zaio posta elektronikoko horri erantzuteko lana. Erantzunean, dokumentua ezarrita dauden bide formalen bidez izapidetu dezala eskatuko du.

4.- Galde-eskeak

Posta elektronikoz jasotzen diren erreklamazioei arreta emateko auzia planteatu da. Orain arte, arreta eman zaie, Tramitagune plataforma elektronikora sartuz, zuzenketak eginda. Alabaina, horrek arazoak ekarri ditu administrazio-prozedura betetzea bermatzeko orduan; hala nola, kexagilearen nortasunaren egiaztapena, sinadurak, sarrera-erregistro formaleko datak... Hori dela-eta, aho batez erabaki da aurrerantzean ezarrita dauden bide formaletatik jasotzen ez diren eskaerei erantzun egingo zaiela, administrazio publikoekin harremanetan jartzeko aukerak adieraziz, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasota dauden, eskatzailearen tipologiaren arabera.

Horretarako, erantzun-protokolo bat formalizatuko da. Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari eman zaio erantzuna idazteko ardura.

Bestalde, Estatuko Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak posta elektronikoz bideratzen ditu erreklamazioak. Bada, zentzu berean erantzungo zaie horiei, informazio hau egiaztatu edo erantsi behar dela eskatuz: kexagileak jakinarazpenak jasotzeko toki fisiko edo elektronikoa, erreklamazioa non eta noiz jarri den jasotzen duen sarrera-erregistroa eta kexagilearen sinaduraren egiaztapena.

Ez da ez galdera, ez eskaera gehiago egon. Beraz, presidenteak 13:30ean eman du bilera amaitutzat.

Idazkaria

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Batzordekidea

Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea

Presidentea

Javier Bikandi Irazabal jauna